

SAILBURUA
LA CONSEJERA

2017KO AZAROAREN 7KO AGINDUA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BERMATUKO BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN 2017KO AZAROAREN 9RAKO DEITUTA DAGOEN GREBAK DIRAUCEN BITARTEAN JENDEARI ESKAINI BEHAR ZAIZKION FUNTSEZKO ZERBITZUAK BETEKO DIRELA.

ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek greba deitu dute 2017ko azaroaren 9rako. Greba egun osokoa izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Haurreskolak Partzuergoari eragingo dio.

Greba deitu dutenek diotenez, "lan-baldintzak eta hezkuntza publikoa defendatzea" da deitutako grebaren helburua. Partzuergoko langileen kolektiboari (1.300 langile inguru) egin diete grebarako deia. Hezkuntza sailak emandako datuen arabera, greba-deialdiak 4.490 pertsonari eragiten dio.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten du greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea, eta informazio-askatasuna, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako oinarrizko eskubideen kontrakoa izan daitekeenez, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzeko neurri egokiak hartu behar dira, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere gauzatu gabe gera ez dadin.

Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da ezen, funtsezko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin, proportzionaltasunaren printzipioa zorroztasunez aplikatuz hartu behar dela, eta horretarako hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, "egokitasun-judizioa" deritzona; egitatea aztertuta, ondorioztatu izana ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko, hau da, "beharrizanezko judizioa" deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, "proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian". Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai



hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu erkidegoarentzat funtsezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhertasunez jokatzea. Alegia, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien artean ezinbestean lortu beharrekoa den koordinazioa oinarri hartuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela –amore eman, Goi Auzitegiaren hitzetan–, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazio edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, greba-deialdi honen aurrean, zehazki greba hau nolakoa izango den hartu beharko dugu kontuan; hau da: alde batetik, egun osokoa izango dela eta, bestetik, Haurreskolak partzuergoari eragingo diola.

Adierazitakoa dela-eta, lehenik eta behin, kontuan hartzekoa da hezkuntza funtsezko eskubidea dela, eta Konstituzioaren 27. artikulua halakotzat jotzen duela, eskubide hori zentzu zabalean harturik; hau da, pertsonen bizitza osoan indarrean dagoela aintzat hartuta, eta, hortaz, existentziaren lehen urteak ere barne hartzen dituelarik, non hezkuntza-zerbitzua ematea beharrezkoa den haurraren garapen integrala ahalbidetzeko

Bestalde, jokoan dauden eskubideen garrantzia bermatuko duten gutxieneko zerbitzuak ezartzeari dagokionez, nahitaezkoa da ikastetxeak irekita egotea ikasleentzat, eta beharrezkoa ere bai greba egiten ez duten langileek lanerako eskubidea – Konstituzioaren 35. artikuluan onartua– gauzatu ahal izan dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2009ko urriaren 9ko epaiak ezarri zuen bezala. Horregatik, gobernu-agintaritzak honek gutxieneko zerbitzutzat jotzen du ikastetxeetarako eta lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzea, gutxienez grebarako eskubidea ez baliatzea erabakitzen duten langileen sarrera bermatze aldera, baita ikasleen sarrera ere; hain zuzen ere, zentroak irekiko ez balira, lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa guztiz eta bidegabeki eragotziko litzateke. Ondorioz, oinarritzko zerbitzua da, bai Konstituzioaren 27. artikulua aitortzen duen hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen ikuspegitik, bai lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko zailtasunaren ikuspegitik. Gainera, zerbitzua lan egiteko eskubidearekin lotuta dago, gizarte-harremanen bilakaera-izaera dela-eta.

Ikastetxeak irekitzea ez da «ikastetxea irekitze» hutsa; aitzitik, irakaskuntza-egitekoaren edo -jardueraren ezinbesteko «funtzionamendu-errutinak» bete behar dira (gutxieneko zerbitzuen izaera murriztailearen eraginez), ikastetxe horietan instalazioak edo materialak zaintzeko eta ikasleak zaintzeko egiten direnen artean; izan ere, ikastetxe horietara ikasle adingabeak joaten direnez –adingabeei ezin zaie helduei eskatzen zaien heldutasun-maila bera eskatu haien jardunean, eta, horren ondorioz, ikastetxearen erantzukizuna ezin da guztiz baztertu (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 14ko Epaia)–, berebiziko arreta eskatzen da ekiditeko modukoak diren arriskuak ezabatzeko edo





murrizteko; alegia, instalazioak behar bezala eduki eta mantendu behar dira, zaintza eta kontrolatzeko lanak egin ere –*eta umeak edo ezgaiak irakaskuntza- edo prestakuntza-jarduerak garatzen diren egoitza batean zaintzeko ardura hartzen bada [...] arreta berezia jarri behar da haiek nozitu lezaketan edozein lesio edo kalte saihesteko*. Valentziako Erkidegoko JANaren 1526/2009 epaia, urriaren 23koa (Administrazioarekiko Auziak, 1. sek.)–. Horren ondorioz, ikastetxe horietan, gutxieneko zerbitzu gehigarri gisa, aginte-eta/edo zuzendaritza-ahalmena duten pertsonak egotea ezarri behar da, prebentzio eta segurtasunerako arreta ikastetxe horietara joaten diren adingabeentzat ikuspuntu objektibo batetik arriskutsuak izan litezkeen gunetara zuzentzeko ardura beren gain har dezaten.

Horiek guztiak ikusita, agindu honetan zehazten dira gutxieneko zerbitzuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, funtsezko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta arlo horretan eskumen eskusiboa gobernua edukitzeak zera bermatzen du: muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Izan ere, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «*greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharrezko edozein zerbitzu eskaintzen duten enpreetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernuko agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko*» eta «*Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartze neurriak har ditzake*».

Arau horretan –zeina konstituzionala baita (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11])–, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluekin bat etorritik, honako hau ezartzen da: «*Eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu jendearentzako funtsezko zerbitzuak mantenduko direla ziurtatzeko*», azken batean, gobernu-agintaritzari ematen zaio ahalmena edozein motatako berme-neurri hartzeko, greba kasuan ezinbesteko zerbitzuei eusteko modua egon dadin, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazio hori eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2. artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta greba deitu duten sindikatuei nahiz Hezkuntza Sailari hitz egiteko aukera eman zaie, Jaurlaritzaren proposamenaren eragina jasango duten zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.





Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Sailsortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubideaz baliatzen direnean autonomia-erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko behar diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izan jasota, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- 2017ko azaroaren 9rako deitu duten egun osoko greba dela eta, Haurreskolak Partzuergoko langileek balia dezakete grebarako eskubidea, baina baliatze hori ondoren adierazten diren ezinbesteko prestazioak eta horiei dagozkien gutxieneko zerbitzuak ematearen baldintzapean egongo da:

- a) Zentroetarako sarrera-kontrola bermatzea.
- b) Zentro bakoitzeko koordinatzaile 1, edo hura ordezkatzeko duen pertsona 1.

Bigarrena.- Ahal dela, zerbitzu horiek greba egin behar ez duten langileek emango dituzte, ezarritako gutxieneko zerbitzuak langile horiekin bete ezin direnean izan ezik.

Hirugarrena.- Agindu honen aurreko zenbakietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldatzea edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kanpokotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Laugarrena.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Bosgarrena.- Jakinarazten den egunean sartuko da indarrean agindu hau.





Seigarrena.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 40. artikuluan xedatutako moduan. Halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie eta, beraz, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko zaiola Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salari, 2 hilabeteko epean agindua jakinarazten denetik zenbatzen hasita; halaxe xedatu baita Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriak 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta hurrengoetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke lan-administrazioko agintaritza egokian, agindua jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 7a.



MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ
LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA